



## **ZER DA Q-EPEA**

Kudeaketan bikaintasuna bilatzearekin konpromisoa hartutako Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publiko batzuek (administrazioa eta enpresa publikoak) osaturiko talde bat da. 2002an, EUSKALIT-Kalitaterako Euskal Fundazioaren lankidetzarekin, batera lan egiten hasi ziren kudeaketa-jarduera egokiak partekatu eta ezagutarazteko, lan-dokumentazioak modu irekian elkarrekin trukatzeko, beste antolakunde publiko eta pribatu aurreratu batzuetako zuzendariak gonbidatzeko –esperientziak partekatze aldera– eta aurrerapen horiek beste antolakunde publiko batzuei ezagutarazteko ekintza publikoak antolatuzeko.

## **MISIOA**

Q-EPEA Kudeaketan bikaintasuna bilatzearekin konpromisoa hartutako Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publiko batzuek (administrazioa eta enpresa publikoak) osaturiko talde bat da ondokoa lortzeko.

- aurrera joatea gure antolakundearen kudeaketaren hobekuntzan ikaskuntza partekatuaren bidez eta
- kalitatearen kultura sustatzea euskal administrazio publikoan.

## **IKUSPEGIA**

Q-EPEAK ezagutza jaso nahi du, nola Euskal Autonomia Erkidegoan hala kanpoan, kudeaketa aurreratuagatik erreferentzia bihurtutako antolakunde publikoen talde bat bezala, eta lagundu egin nahi du, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoen kudeaketa modernizatzen.

## **BALIOAK**

Gure Misioa aurrera eramateko, ondoko balioak hartuko ditugu oinarri:

**IKASKUNTZA PARTEKATUA:** Informazioa eta jakintza era aktiboan partekatzeko borondatea, baina baita arduraz jokatzuz ere erabiltzeko moduko informazioarekin.

**LANKIDETZA:** Beste pertsona eta antolakunde batzuk ere bilduko ditugu gure Misiora eta Ikuspegira.

**PERTSONAK ETA ANTOLAKUNDEAK ERRESPETATZEA:** Antolakunde bakoitzaren ahalegina eta ekarpenak errespetatzea norberak izan ditzakeen aurrerapen-erritmoez kanpo.

## **Q-EPEAKO KIDEAK**

- BILBOKO UDALA
- DURANGOKO UDALA

- GETXOKO UDALA
  - GASTEIZKO UDALA
  - BIZKAIKO FORU ALDUNDIA: OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA
  - BIZKAIKO FORU ALDUNDIA: GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA
  - BIZKAIKO FORU ALDUNDIA: LANTIK
  - GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA: ZERBITZUEN KALITATEA ZUZENDARITZA
  - ERTZAINZAKO IKUSKAPEN OROKORREKO ZUZENDARITZA
  - EITB
  - IHOBE, S.A.
  - HAEE
  - OMA
  - SPRI, S.A.
  - VISESA
  - ARABAKO FORU ALDUNDIA
  - OSAKIDETZA
  - EJIE
  - EUSKO LEGEBILTZARRA – PARLAMENTO VASCO
- 
- EUSKALIT (Q-EPEAKO IDAZKARITZA TEKNIKOA)